

El perfume filma lantzeko

Das Parfum - Die Geschichte eines Mörders 2006. urtekoa. 147 min. Zuzendaria: [Tom Tykwer](#)
Gidoia: Andrew Birkin, Bernd Eichinger, Tom Tykwer (Novela: Patrick Süskind). Musika:
Reinhold Heil, Johnny Klimek, Tom Tykwer . Aktoreak: [Ben Whishaw](#), [Alan Rickman](#), [Rachel
Hurd-Wood](#), [Dustin Hoffman](#), [Sara Forestier](#), [Karoline Herfurth](#)



Patrick Süskind idazlearen eleberri, beste-seller-aren egokitzapena. Bertan XVIII. Mendeko Frantzia aztergai da. Jean Baptiste Grenouille azoka zikin batean jaio egin zen eta bere amak bertan utzi zuen, zaborra artean. Umea bere gain hartu zuten botereek eta hospizio batera igorri zuten. Bere haurtzaroa ingurune deseroso eta arriskutsu batean eman zuen, gerora esklabo moduan larruekin aritzen ziren lantegi batera saldua izan zen. Berezitasun bat zuen Jean Baptiste, bere usaimena inorena baina garatuagoa zuela, nahiz eta berak inolako usainik izan ez. Geroago lurrin egile batean fabrikari lana topatuko du eta bere formakuntza osatzen joango da, bere helburu nagusia lurrin bitxi bat eratzea duelarik, honetako lehengai bereziak erabiltzen dituelarik.

Galdera batzuk.

Zein urteetan zehar dago kokaturik filma?

Umezurtz etxeko baldintzak nolakoak ziren? Ezagutzen duzu halako kasurik egun?

Zeintzuk dira lan esklaboaren ezaugarriak eta baldintzak? Adibideak eman

Lurrinak egiteko prozesua deskribatu.

Aztertu pasarte ezberdinetan zehar ikusten diren justizia motak.

Nola nabarmentzen da elizaren boterea eta gizartearengan duen eragin eta kontrola?.